

## ARRIETA'TIK GAZTELUGATZE'RA

Euzko baserri aintzagarriak arizti ta intxaur artean zuri ta zabal agertzen dira gure lurraren gainean: etxe jagole txakur zuria beti. azkar gauelean iturritxo ura opaka egarri atselean.

Gure arbaso aintzagarriak sortu zituen kabiak mendi ta solo ta zelaietan zeru izar irudiak: lurralde oro ederrez dauka basetxe apainduriak. maite miñetan ikusten ditut baserri zortgarriak.

Bakar bakarrik zagoz zelaian orlegiz inguratutik. zure leioan dago amama eguzkiz inguratutik; illobatxoak daukaz alboan ataitasunez beterik zuek maiteok daroazue nire odola bizirik.

Giza biziak ez dau nai berez gorrotorik biotzean. senar barria. alai, bizi da emazteagaz hatean: etxeko andre zoragarria pozez, laguntzen lanean, maitasunezko bizieta onek bakea sortzen etxean.

Euskal basetxe kristau sendian Kurutzea da gidari. Jesus maiteak golgota mendin emon euskun ezaugarri: lan ta otoia lurak landuaz batera doaz bidari baserri muga sinimentsuak ikutuz zerukoari.

Paulin

### EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL-ASTEIA 1998 (Bilbao'ko Udalaren babespean eta laguntzaz)

Urte guztietan lez aurte be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Euskal—Asteia ospatuko dau.

Zemendiaren 30'etik abenduaren 4'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean Aida. de Rekalde kalean, 19. ateian, arratsaldeko 8'retan.

Oneik izango dira izlariak eta gaiak:

30.— Astelena: Zubiri'tar Iñaki: Arrese Beitiaren olerkaritza.

1.— Martitzena: Zubikarai'tar Augustin: Euskerearen bitxikeriak.

2.— Eguastena: Latxaga (J.M. San Sebastián): Dabbadie euskalzale ta idazlea.

3.— Eguena: Murua'tar Jose María: Euskerea ta Euskerazaintza.

4.— Barikua: Olazar'tar Martin: Euskerea len, orain eta gero.

Itzaldi guztiak izango dabe aurkezpena, alkar—izketa ta bertsoak. Oneik Paulin Solozabal bertso gille dala.

Beioake euskalzale guztiai gure deia.

### IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatzitak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

— Ipuinak asmatutikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

— Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe.

Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillan, baita DE[A Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.

2.ª 40.000 pezeta.

3.ª 30.000 pezeta.

4.ª 20.000 pezeta.

— Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

**OARRA:** Ipuinak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ